

# MIRANDEREN

## Poesiaz ohar batzuk

FELIPE JUARISTI

### 1. Portreta

Portreta gutxi ditugu Jon Miranderenak. Ezagunenean Jon Mirande adinez heldua ikusten dugu, burua soiltzen hasia, begiak betaurrekoez estaliak, alkandora zuria eta korbatu. Noizkoa ote den ez dakigu, non egina are gutxiago. Ez da oso nabarmena haren begitartea, euskaldun batenak euskaldun ez denarentzat dituen ezaugarriez jantzita dago: belarri handiak, sudur luzea. Zuberoako jauntxotzat har daiteke, lagunen arteko solasaldira edo biltzarrera joana, besterik gabe; besterik jakingo ez bagenu. Edo-eta musikajoleztat, biolina eskutan harturik, Paganiniren doinu bat jotzera doana. Paganini ez, Schuberten doinuak jotzen errazago irudikatzen dut portretako jauna. Ezpainek irribarre erdia erakusten dute; barre egin nahi baina azken batez barrerik gabe, keinu hutsal bat airera jaurtia izan balitz bezala.

Gizon ironiazalearen irribarrea, Freud doktoreari sinestera. Ez da gogortasunik edo bortizkeriarik sumatzen aurpegi horretan, gozoa bainoago, herabea dela esango nuke, berak kantatu ez zituen neskatak baino herabeago, noski. Laino artetik sortzen den eguzki izpien bizitasuna du, hala ere. Borrrokari beti, iluntasunaren kontra, aitzinako guduari jarraiki. Portreta hori ikusirik, nekez pentsatuko genuke idatzi zuena idazteko adorea izango zuenik. Baina hala da.

### 2. Bizitza

Haren bizitzaz gutxi esango dut. Gogo-pizgarri ez zaidalako Miranderen bizitza, oro har harturik esan nahi dut, hori bateko. Lotsabide ere bai, besteko, estimatzen ditudan poeten bizitzako xehetasunak lau haizetara zabaltzen hastea. Poeta batzuk ulertzeko, haien poemaz jabetzeko ezinezko da bizitzako pa-

sarteetara jotzea, poesia bizitzaren luzagarri eta eranskin ondo biribildua baita haiei dagokienean. Baina poeta handiek, eta zenbat eta handiagoa orduan eta ezezagunagoa, hala izan da beti, beren bizitzako arrasto gutxi uzten dituzte argitara eman duten poesian. Gustatu izan ez zaidan azterketa-bidea izan da, poeta baten bizitza hartu eta hura gero idatzitakoarekin erkatzen aha-legintzea. Arrakastaduna da, nekez egingo da hutsik horrelakoetan. Esaterako: aztertzaile trebatu eta jakitun batek idazle edo poeta baten bizitzako zuloetan sudurra sartu ondoren, erabaki dezake idazle edo poeta horrek min eta ezbehar franko jasan zituela bere bizialdian. Ondorio gisa esan dezake, eta badira esatera ausartzen direnak, bizitza triste eta mingarria jasan zuelako idatzi zituela tristeak diren hainbat testu edo poema. Noski, ez dago idazlerik, triste ez ezik, bere bizitzako uneren batean tristuraz ere idatzi ez duenik. Edo alaitasunaz idatzi ez duenik, edo maitasunaz idatzi ez duenik, nahiz eta beharbada maitasuna zer den ezagutu ez, maiteminduek ezagutzen duten gisara esan nahi dut. Idazlea, idazterakoan, bere errealitatetik kanpo jartzen da eskuarki. Ikusi besterik ez dago zein den idazlearen lantokia: gela bat aparte, etxeko beste geletatik bereiz; giroa ere halakoxea, etxeko giroarekin zerikusirik ez duena. Idazlea, bere larrutik irten, eta bera izanik bera ez den beste baten larruan sartzen

da lanean ari denean. Idazlea noblelagile bada, pertsonaiaren larruan. Poeta bada, poesiaren larruan, izan ere, poesiak espirituaz gain, hezur-giharrak baititu. Eta baloratu, aztertu, kritikatu eta goraiatu behar dena, ez da idazlearen edo poetaren bizitza, hark argitara emandakoa baizik. Adibideei jarraiki, inork ez dakigu nolako bizimodua eraman zuen Homerok. Areago, nekez jaikingo genuke horren berri haren poema epikoak irakurrita soil-soilik. Gertatzen da hala ere, poeta batzuen bizitza ezagunagoa egiten dela, ospetsuagoa ere bai, haien poesia baino. Ez naiz adibide jartzten hasiko. Anekdotak irensten dituen munduan bizi gara eta hortik atera kontuak. Gertatzen da, une larri batzuetan, bizitza eta poesia bat egiten direla, ibai berean bat egiten diren bezala ibaiko adarrak. Esaterako, aipatzera noa jenero horretan egin diren poemarik bikainenak: Ovidioren da bata, Oscar Wilderena, bestea.

Ovidiok deserriaren gozo-min-gotsak ezagutu zituen. Minez aldegin zuen Italiatik, jende basatiaren artera bizitzera beharturik. Minez idatzi zuen "Tristia", urrutiminez esan nahi nuen, min guztiak ez baitira berdinak. Bada, izan ere, urrutiminez hiltzen dena eta baita gertuminez egiten duenik ere. Bada, kaiolaturik ere kantatzen duen txoririk, eta bada kaiolatzu gero, erraiak deseginda hiltzen denik ere. Denok ez baikara berdinak, ezta beharrik ere.



Oscar Wildek sekulako eragozpena izan zuen beti, izu-ikara handia, bere bizitzako pasarterik xumeena ere liburuetara eramateko. "Dandy" a zen, munduko gertakariak talaiata batetik bezala ikusten zituen. Baina kartzelara eraman zutenean, eta ez naiz hemen aipatzen hasiko zergatik izan zen, Readingeko kartzelako egonaldiaz oroitzuz, poema sakonen eta hunkigarria idatzi zuen. "Epistola in Carcere et Vinculis" ("De Profundis") zuen izena.

Mirandek poema gutxi idatzi zituen bere bizitzako pasarteen edo gertakarien gogoragarri. *Paris Beuret* izenekoa dugu bakarrenetakoa. Ekar dezagun oroimenera zatika bederen:

Parisko kale batean  
 Etxe zikinen artean  
 bat dago zikinagoa  
 Iluntzen baitit gogoa  
 haren aipatzeak berak,  
 Han bertan dut lan egiten  
 Axotez beztuz paperak.  
 Seiak jo arte ezin irten  
 Aspertzen naiz, lor betean  
 Büro zikintsu batean.

Har dezagun berriro esku artean lehenxeago aipaturiko Miranderen portreta. Bulegari izan zitekeenik ez zitzaigun lehen behakoan otu; baina ondo pentsatzera, bulegari ez ezik, jendarma edo ertzain ere izan zitekeen, gure Mirande noski. Aurpegiak mila lanbide islatzen ditu harenean. Bulegoko poema hori, Miranderen lortuenetarikoa ez bada

ere, haren sentimentuen argigarri da neurri batean.

Nire lankide bikainak  
 Ditut adixkide minak;  
 Goizero agurtzen naute  
 ...Ixilik, bai naute maite  
 ...Nola deabruak Jainkoa.

Azken konparaketan dago, nire ustez, Miranderen bizitza barik, haren poesia ulertzeko giltzetako bat.

...Nola deabruak Jainkoa

### Deabrua eta Jainkoa

Jainkoa, noski, Mirande bera izango da. Eta deabruak, deabru-txoak, bulegoko lankide bikainak. Erlijio guztien sorreran aurkitzen dugun mitoa ageri zaigu Mirandek bere esperientzia esaten duen poema horretan. Bibliako kontraeran deabruak Jainkoaren aurka matxinatu omen ziren, Bera adina eta gehiago izan nahi baitzuten. Hala esan digute.

Mirandek, mendebaleko edozein gizaseme edo emakumek bezala, erlijio-mitook ezagutzeaz gain, bizi izan zituen. Ez dut esango gizon fededun zenik, Eliza guztiz Katolikoak ulertzen duen erara. Egia esatera, euskaldun fededun izatea ez zen bere asmoa. Bizitza osoan gorrotatu zuen fededunen apaltasuna eta sinesmen sinplea, fededunen biguintasuna. Ez dut esango Jainkoa sinesten zuenik, katoliko fededunek sinesten duten erara, baina. zallantzarik ez, erlijioak atxikitako gi-



zona zen. Zergatik bestela haren setakeria Eliza Katolikoaren dotrina eta sinboloak suntsiarazten? Irakur ditzagun, *Akelarre*, *Harrizko Jainko bati*, *Ohiko Jainkoari*, *Nil igitur mors est* edo-eta *Sanguis martyrum*. Jainkogabea balitz, zertarako hainbesteko lanak eta nekeak hartu, Jainkoaren aurka idatziz, alegia ohiko Jainko ezagun eta gurtuaren aurka idatziz?

Har ditzagun Erromantizismoaren gailurra zapaldu zuten hiru poetak, direnik eta poetarik handienak, ederrenak, sakonenak, baita ere kezkatuenak, bakartienak, garbienak: Hölderlin, Von Kleist eta Nietzsche, noski.

Hölderlinek sinesmen osoa jarria zuen poesiaren jatorrian Jainkoa bera zegoela. Inork gutxik Hölderlinek bezain ozenki aldarrikatu du poesiaren eta munduaren artean dagoen leizearen handitasuna. Sinestun zen, inor gutxi bezain sutsuki gainera. Haren Jainkoa mundua aho-uhaletik hartuta daraman Patua zen. Poesia Hölderlinentzat, Ebanjelioa katolikoentzat bezala zen: egia osoa, benetako egia. Bizitza osoan Poesiaren Mitoa zabaltzen ahalegindu zen Hölderlin. Jainkoek poetak aukeratu zituzten, hala da Hölderlinen iritzia, gizakiei egia esateko. Hölderlinek, hala ere, bazekien hilkor zela, ez zela Jainko izango, ziur zen Enpedokleri gertatu zitzaiona gertatuko zitzaiola.

Hölderlinek poesiari buruz zituen ideia horiek ez ziren berriak. Garaian zebiltzan hara-hona hegan, hazi-hautsa udako egun sargorietan haize-firfirak eramanik dabilen bezala. Ala Hölderlinek esaten zuenaren ezberdina ote dugu Inspirazioa, edo Goi-Arnasa, Orixek esaten zuen moduan? Goitik datorren arnasa, goitik datorren hitza, biak bat dira. Goikoari ematen zaion ize-na da desberdina.

Goethek berak Eckermanni idatziriko gutun batean hala dio:

Arterik garaienak sortu duen oro, zentzumenek adierazten dituguten oro, ez da giza sorkuntza, lur-indarren gainetik dago.

Hala ere, Goethek, Hölderlinek ez bezala, oso asentatuak zituen hankak lurtean. Lurretik kanpo, Hölderlin bizi izan zen, zeruari begira beti.

Von Kleist, Alemaniako poeta tragikorik osoena dugu. Bere barnean sortuz eta haziz zihoan nahasmendua ordenatu nahi izan zuen poesiaren bidez, jakinik poesia, azken batean, horixe bera dela, nahasmenaren ordenamendua.

Nietzcheri buruz luze mintza ninteke, areago Mirendek maite zuela jakinik, baina ez dut horrelakorik egingo. Jainkoaren heriotza aldarrikatu zuen eta haren tokian gizakia jarri. Greziar tragedia ikastetik bere buruaren tragedia antzestera lerratu zen, inongo edaberik gabe, inolako gozogarririk gabe.



Testu bat dakarkizuet horren adierazgarri. Hala dio Nietzschek:

Era arriskutsuan bizitzea, gure mundualdiak eman dezakeen igalirik gozoena jatea da.

Miranderen bizitza, nik dakidala, lasai samarra izan zen. Bizitza ordenatua, bulegoko lana... kezkak eta egonezinak, harra barne-muinak poliki-poliki jaten, hori ezkutu eraman ez bazuen ere, lagunei idatziriko gutunetan utzi zuen adierazirik.

Poesia da, Miranderenean, haren espirituaren ispilu. Mirande erromantikotzat jo izan dute. Nik, ordea, neure zalantzak ditut Mirande erromantikoa izan ote zen, Erromantizismoaren adiera betean esan nahi dut. Baina fede emango nuke Mirandek badituela erromantikoen grina eta ajeak.

Hasteko, hona nire galdera. Bizi ote zuen Mirandek Hölderlinek, Von Kleistek eta Nietzschek bizi izan zuten grina?

Erromantikoen garaiko grina edo aje horri buruz nik gogoratzen dudan esaldirik biribilena Zweig idazleak idatzi zuen:

Berezko grina da, nor bere buruaren baitatik kanpora jaurti eta infinitorantz abian jartzen duena, gauza guztien aurretikoa den tokirantz alegia.

Nahasmena da gauza guztien aurretikoa, Jainkoak bere grinaz ezer sortu aurretikoa. Eta horra doa

Mirande, bere grinak bultzaturik, Kristautasuna sortu aurretiko garaira, Kristautasunak bere ekimenez antolatu aurretiko mundura. Paradisura akaso? Agian. Nahasmenera akaso? Ez dakit.

Baina nire galdera hauxe, benetan sinesten ote zuen hori? Benetan ote zen Mirande paganoa?

Nire irudipena da dagokeen erlijiorik zaharrena zebilkiola buruan, sinestu ez sinestu. Gaur egungo erlijio nagusiek beren erakundeak eraiki dituzte, beren agintariak sortu eta haien eskumendean jarri dituzte sinestunak. Hala egin dute juduek, musulmanek eta kristauak, bai katolikoek eta baita protestanteek ere. Erlijio hauetan guztietan jainkoa norberaren kanpotik dago, norberaren ni-tik harantzago. Tradizio horietan guztietan mistikoak ugari sortu dira. Batzuk bat etorri dira erakundearekin, nekez izan bada ere. Beste batzuek, ordea, saihezbidea hartu dute, norberaren baitan dagoen Jainkoaren bila jarri dira abian. Hori erlijio-ordezkariek, agintariek alegia, okerbidetzat jo izan dute betidanik.

Honetaz, norberaren barruan dagoen Jainkoaren bila abiatze horretaz, oso esaldi ironikoa idatzi zuen Chestertonek:

Jonesek bere baitan dagoen Jainkoa gurtzeak ekarriko du, luzera, Jonesek Jones gurtuko duela.

Norberaren baitan dagoen Jainkoaren bila hasi eta norbera Jainko



dela sinesturik amaitzen da. Hori da erlijiorik zaharrena. Horrela ulertzen dut behintzat Miranderen poemako bertsoa:

...Ixilik, bai naute maite  
...Nola deabruak Jainkoa.

Paganoak Jainko asko daudela sinestuta bizi badira, arrazoinamenduaren indarrez beraiek ere Jainko direla sinestera irits daitezke. Mirande ere bai. Baina ez dut uste Mirandek sinesten zuenik bera Jainko zenik. Arduratuegi zegoen heriotzaren gaiaz.

## Poesia

Miranderen espirituak bere garaikoak ez ziren gailurrak ezagutu zituen. Esana da lehendik ere, Mirande ez zen hemengoa, ez zen bere garaikoa, Hölderlin, Von Kleist eta Nietzsche berekoak ez ziren bezala. Heriotza zuen kezkgai eta larrialdien iturri. Minez bizi zelako, ala biziminez bizi zelako? Ekar ditzagun gogora *Nil igitur mors est* poemako azken bi ahapaldiak:

Gizendak eri zirelarik  
Bizi-min deithu minbiziaz,  
mintzo zan, ixil, ez-jainkoa;  
"Deus ez da" zion "herioa:  
EZ dena EZin daiteke hil."

Et'EZak oro zituen jo:  
hiriak, haurrak, maitaleak  
—eta botz neukan bihotzean,  
hil-bildur deithu gezur-minaz  
gizendak eri ziradela.

Epikuro aspaldi egin zen iritzi horretakoa:

Gaitzetan gaitzik izugarriena,  
Herio hain zuzen, deus ez da  
gureztat, bizirik garen bitartean  
ez baitzaigu ageri, eta ageri zai-  
gunean, orduan ez gara bizirik.  
Deus ez da ez bizientzat ez hi-  
lentszat, haientzat oraindik iritsi  
ez delako, eta hauek dagoeneko  
bizirik ez direlako.

Bizi-beldurraren sendagarri gisa  
asmatu zuen Epikurok bere filoso-  
fia, hiltzeko ordua kezkgarri gerta  
ez zedin. Epikurori jarraiki, gogora  
ditzagun, *Menezeori Gutuna* deitzen  
den testu horretan dioena:

Gazteari ongi bizitzeko eta  
adintsuari ongi hiltzeko aholku  
ematen ari zaiena ergel hutsa  
da, bizitza ederra ez ezik, ongi  
bizitzeko eta ongi hiltzeko lana  
bat eta bera baita.

Ildo horretatik uste dut aztertu  
beharko litzatekeela Mirande, poe-  
mari dagokionean, noski. Hiltzeko  
beldurrik gabe, izan ere, zer da he-  
riotza. Ipuin bat, noski. Eta hil-  
tzeko beldurrik ez duena gauza da  
bere buruaz beste egiteko, edo bere  
burua poliki-poliki suntsiarazteko.  
Eta hiltzeko beldurrik ez duenak bi-  
zitzeko ere aitzakiarik ez du, minez  
eta minari loturik bada ere.

*Min* hitza poemetan sarrien age-  
ri den hitza dugu. Min-beldurrez  
bizi ote zen, hipokondriakoen an-  
tzera?

Miranderen mina, fisikoa bainoago, metafisikoa zelakoan nago. Espirituaren minago zen, soinarena baino. Bizidun zenez, heriotza zuelako zor. Hala uste dut. Ezagutu zutenek gizon alaitzat jotzen dute. Bizimodua alaia omen zeraman. Batak ez du bestea kentzen. Frogaturik baitago bizitzaz ase-bete egin dutenak ez direla egoten heriotz-orduaren zain. Ez dute izu-laborririk erakusten, ez dira espantuka hasten, biziluzaka, otoizka eta erre-guka. Joaten dira iritsi zaienean beren ordua.

Herioa Miranderenean sarri errepikatzen den irudia dugu: *Jau-regi hotzean, Ilhunabarrez*. Poema honi buruz esan nahi dut iturria Erdi Aroko mito batean duela. Behin Ismail Kadarek irakurri zidan poema bat oso antzekoa. Albaniako elezahar batean oinarriturik omen zegoen. Istorioa gutxi gora-behera hau da: Behin batean fantasma batek, hildako gizon batek alegia, egiten du sarrera neska baten etxean. Hildakoa anaia du neskek,

urrutiko gerraren batean hilda. Neska bere herrira, bion herirra eramateko asmoz etorria da. *Orhoituz* poeman ere Herioren irudia ageri zaigu. Poema hori, zalantzarik gabe, keltiarra da jatorriz. Zenbait aldaerarekin irakurri izan diet nik bai James Joyceri, jatorriz irlandarra bera, baita Keatsi ere.

*Eresi, Lili bat, Nil igitur mors est, Zakhur hil bati, Paranoia*. Miranderen poesia heriotzaren obsesioz idatzia izan da. Erabil daiteke sendagarri gisa, jakina baita Herioren aurrez-aurre egon direnek galtzen diotela beldurra, otsoari ere galtzen zaion bezala, behin ikusi eta aurrez-aurre egonez gero.

Horrekin batera Miranderen zentzu trajikoaren neurria ematen digu. Ez zuen bizitza komedia gisara ikusten, tragedia gisara baizik.

Miranderen portreta berriro begien aurrean jartzen dut. Irribarre erdia barne-tragediaren salatari duguk.